



ZERBITZUAK EMATEAGATIKO ETA JARDUERAK EGITEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

1. artikulua

Legutioko Udalak, Arabako Lurralde Historikoko Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera, prezio publikoak ezartzen eta eskatzen ditu eranskinetan jasotzen diren udalerriaren eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egiteagatik, ordenantza honen baldintzetan, eta horien parte dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatzekoa da.

3. artikulua

Ordenantza honetako prezio publikoak zerbitzuen edo jardueren onuradunek ordaindu beharko dituzte.

4. artikulua

1. Prezio publikoen zenbatekoak, gutxienez, emandako zerbitzuaren edo egindako jardueraren kostua estali beharko du.

2. Zerbitzuak emateagatiko edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoen zenbatekoa ordenantza honen eranskinean eta haren epigrafeetan ezartzen da.

3. Hala gomendatzen duten arrazoi sozialak, ongintzakoak, kulturalak edo interes publikokoak daudenean, Legutioko Udalak aurreko paragrafoan aurreikusitako mugaren azpiko prezio publikoak ezarri ahal izango ditu. Kasu horietan, erakundearen aurrekontuetan behar diren zuzkidurak esleituko dira, diferentzia estaltzeko, halakorik badago.

5. artikulua

Kopuru horiek, eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordaindu beharko dira, eta ezingo dira murriztu epigrafeetan azaltzen diren zenbatekoak.

6. artikulua



Ordenantza honetako zerbitzu edo udal jarduerak jaso ahal izateko, aurrez horien eskaera egin beharko zaio Legutioko udalari. Zerbitzu edo jarduera horiek emanda daudela ulertuko da ordenantza honetako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean eta luzatu ondoren; prezio publikoa ez ordaintzeak automatikoki ekarriko du zerbitzua ez ematea edo jarduera ez egitea.

7. artikulua

Ordenantza honetako prezio publikoak ordaindu beharra zerbitzua ematen den edo jarduera hasten den unean sortzen da.

Hala ere, dagoeneko eman edo luzatutako zerbitzuak edo jarduerak badira, ordaindu beharra sortzen da dagozkien tarifetan adierazten diren aldietako bakoitzaren lehenengo egunean.

8. artikulua

Prezio publikoa udal kutxetan zuzeneko diru sarrera eginez ordainduko da, zerbitzua eman edo jarduera egin aurretik eta adierazitako zenbatekoan. Hala ere, prezio publikoak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahal izango da.

9. artikulua

Dagokion zenbatekoa itzuliko da jarduera egiten ez bada eta ez egitearen arrazoiak ezin bazaizkio egotzi prezio publikoa ordaintzeko betebeharra duenari.

10. artikulua

Prezio publiko horiek ez ordaintzearen zorrak premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

11. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

I. ERANSKINA

1. Epigrafea: Fotokopiak, faxak eta kopiak CDan

A) Fotokopiak egitea udal bulegoetan eta liburutegian.



KONTZEPTUA	TASA
A-4 zuri-beltzean	0,10 euro orrialdeko
A-4 zuri-beltzean bi aldeak	0,15 euro orrialdeko
A-4 koloretan	0,60 euro orrialdeko
A-3 zuri-beltzean	0,20 euro orrialdeko
A-3 koloretan	1,20 euro orrialdeko

B) Faxe:

KONTZEPTUA	TASA
Lurralde barruan eta lurralde artean	0,10 €/orrialdeko
Nazioartekoa	0,50 €/orrialdeko
Jasotzea	0, €/orrialdeko

C) Kopiak CDan

KONTZEPTUA	TASA
Kopiaren kostua (CDa barne)	3,80 €/CDko

Salbuespenak: Udalerriko administrazio batzarrak eta egoitza udalerrian duten irabazteko xederik gabeko entitateak.

2. Epigrafea: Kirol-jarduerak egitea

Erabiltzaileek ordaindu beharreko kuotak:

A) Kirol-denboraldia (urria-ekaina). Kuotetako bat ordainketa bakarrean ordaindu ahal izango da, denboraldi osoagatik, edo hiru hilean behin; hiru hilean behin ordaintzeko aukera eskatuz gero, ordainketa helbideratu beharko da nahitaez.

A.1. Diruz lagundutako jarduerak:

JARDUERA	DENBORALDIKO ZENBATEKOA	HIRUHILABETEKO ZENBATEKOA
Psikomotrizitatea (4-5 urte)	108,00 €	40,00 €
Igeriketa (8 urtera arte)	70,00 €	25,00 €
Igeriketa (9-16 urte)	80,00 €	28,00 €

A.2. Diruz lagundu gabeko jarduerak:

JARDUERA	DENBORALDIKO ZENBATEKOA	HIRUHILABETEKO ZENBATEKOA
MULTIKIROLA (< 16 URTE)	165,00 €	65,00 €
FUTBOLA (< 16 URTE)	269,00 €	90,00 €
GAZTEFIT (< 16 URTE) 1 OR/AST.	97,00 €	33,00 €
BESTE BATZUK (< 16 URTE) 1 OR/AST.	97,00 €	33,00 €
BESTE BATZUK (< 16 URTE) 1,5 OR/ASTEA	129,00 €	43,00 €
BESTE BATZUK (< 16 URTE) 2OR/AST..	165,00 €	65,00 €
BESTE BATZUK (< 16 URTE) 2,5 OR/AST.	217,00 €	73,00 €
BESTE BATZUK (< 16 URTE) 3 OR/AST.	269,00 €	90,00 €
FELDENKRAIS ELOSU (>16 URTE)	158,00 €	53,00 €
BIZKARRA URBINA (> 16 URTE)	116,00 €	40,00 €
PILATES URRUNAGA (> 16 URTE)	116,00 €	40,00 €
BESTE BATZUK (> 16 URTE) 1 OR/AST.	116,00 €	40,00 €
BESTE BATZUK (> 16 URTE) 1,5 OR/AST.	158,00 €	53,00 €
BESTE BATZUK (> 16 URTE) 2 OR/AST.	200,00 €	67,00 €



BESTE BATZUK (> 16 URTE) 2,5 OR/AST.	245,00 €	85,00 €
BESTE BATZUK (> 16 AÑOS) 3 OR/AST.	384,00 €	128,00 €

B) Beste kirol-jarduera batzuk.

B.1. Hilabeteko jarduerak:

JARDUERA	ZENBATEKOA
Astean egun bat	30,00 €
Astean bi egunetan	50,00 €

B.2. Bi hilabeteko jarduerak:

JARDUERA	ZENBATEKOA
Astean egun bat	50,00 €
Astean bi egunetan	90,00 €

B.3. Kirol-ekitaldietan izena ematea:

JARDUERA	ZENBATEKOA
Federatu gabeko helduen BTT martxa	12,00 €
Heldu federatuen BTT martxa	10,00 €
BTT martxa, 9 urtetik 15era, aldez aurretik	2,00 €
BTT martxa, 9 urtetik 15era, egun berean	4,00 €
Jarindo-Albertia heldu ez-federatuak	10,00 €
Jarindo-Albertia heldu federatuak	8,00 €

Kuota horiei buruzko oharra: Jardueri aplikatzen zaizkien kuotak 3 urteko epean, aplikatzen hasten diren egunetik zenbatzen hasita, dagokion monitorearen kostua finantzatzeko kalkulatu dira. Hala ere, udalak bere gain hartuko du jarduerak emateko erabiltzen den lokal bakoitzaren garbiketa zerbitzuen, energia elektrikoaren, gasaren eta abarren kostua.

Jarduera baten monitorearen kostua, jarduera amaitzean, kuotak kobratzeagatik jasotakoa baino txikiagoa bada, aldea itzuliko zaie parte hartzaileei.

Jarduera bat hasteko, udalaren alde aurreko balorazioa beharko da.

Kirol jardueren kuotei aplikatu beharreko arauak.

Denboraldi jardueretako kuota itzuli ahal izango da hasi eta lehenengo hilean, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta.

Denboraldi jardueren hasieratik hilabete igarota, ez da kuotarik itzuliko.



Bestalde, denboraldikoak ez diren jardueren kuota (hilabete batekoak edo bikoak) itzuli ahal izango da jarduera hasi eta lehenengo astean, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta.

Denboraldikoak ez diren jardueren (hilabete batekoak edo bikoak) hasieratik astebete igarota, ez da kuotarik itzuliko.

Dagoeneko hasita dauden jardueretan, otsaila arte kuota osoa ordainduko da, eta martxoaren 1etik aurrera urteko kuotaren ehuneko 60.

Hobaria emango zaio familia-unitateko pertsona bakoitzeko kuota bati, betiere udal-zergen ordainketan egunean badago. Horretarako, familia-errenta estandarizatuaren kalkuluaren emaitza hartuko da kontuan, II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

2. Epigrafea: Fitness-aretoa (16 urtetik gorakoak)

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Fitness-gela monitorearen laguntzarekin (laguntza-etaulak prestatzea, etab.)	160 €/urtea eta 50 €/hiruhilekoa
Fitness-gela, monitorearen laguntzarekin (etaulak prestatzea, laguntza, etab.)	240 €/urtea eta 75 €/hiruhilekoko sauna erabiliz
Txartela galtzea	6 €
Ehuneko 50eko hobaria langabezia dauden pertsonentzat eta ikasleentzat (24 urteko gehieneko adina)	

Hobaria emango zaio familia-unitateko pertsona bakoitzeko kuota bati, betiere udal-zergen ordainketan egunean badago. Horretarako, familia-errenta estandarizatuaren kalkuluaren emaitza hartuko da kontuan, II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

4. Epigrafea: Kirol-instalazioen alokairua

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Polikiroldegia	35 €/argirik gabeko ordu bakoitzeko.
	40 €/orduko, argiarekin
Frontoia	20 €/argirik gabeko ordu bakoitzeko
	25 €/orduko, argiarekin
Dutxa kiroldegian edo pilotalekuan	2 €
Elixoste	30 €/orduko

Asteburuetan eta jaiegunetan, tokiko taldeei lagatzen zaizkien instalazioek ez dute dutxarik erabiliko (borondatez eskatzen ez badute eta ezarritako prezioa: 2,00 euro dutxa eta pertsonako).

Aipatutako lokalak doan lagako zaizkie honako hauei kirol-ekitaldiak, bilerak, hitzaldiak eta abar egiteko, edukieraren arabera:

- Erregistratutako tokiko kultura- eta kirol-elkarteak.
- Erregistratu gabeko tokiko elkarteak eta tokikoak ez direnak, betiere kirol-, kultura- edo gizarte-interesa badago eta giza eskubideak sustatzen edo defendatzen badituzte.
- Garazi ikastola eta osasun-zentroa.
- Erakunde publikoak: Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Gorbeialdeko Kuadrilla.

5. Epigrafea: Kultura-jarduerak eskaintzea

JARDUERA	DENBORALDI ZENBATEKOA	HIRUHILABETEKO ZENBATEKOA
URR. – MAI. DENBORALDIA. 1HR/ASTE	127,50 €	42,50 €
URR. – MAI. DENBORALDIA. 1,5 ORDU/ASTE	191,25 €	63,84 €
URR. – MAI. DENBORALDIA. 2 ORDU/ASTE	255,00 €	85,00 €
HIRU HILEAN BEHIN 1HR/ASTE	--	51,00 €
HIRU HILEAN BEHIN 2 ORDU/ASTE	--	102,00 €
HIRU HILEAN BEHIN 3 ORDU/ASTE	--	153,00 €
HILEKO EDO BEHERAGOKO IKASTAROAK (PUNTUALAK) HELDUAK PREZIOA/HR	10,00 €	--
IKASTAROAK (ZEHATZAK) HILEKOA EDO TXIKIAGOA PREZIORIK TXIKIENA/HR	6,00 €	--
HAURREN KOLONIAK	5,00 €	--

Aurreko kuotei buruzko oharra: jarduerari aplikatzen zaizkien kuotak dagokien monitorearen kostuaren ehuneko 80 finantzatzeko kalkulatu dira. Udalak bere gain hartuko du monitorearen, garbiketa-zerbitzuen, energia elektrikoaren, gasaren eta abarren gainerako ehuneko 20ko kostua, jarduerak emateko erabiltzen den lokal bakoitzari dagokiona.

Jarduera bat amaitzean, monitorearen kostua txikiagoa bada dagozkion kuotak kobratzeagatik bildutakoa baino, diferentzia itzuliko zaie parte-hartzaileei.



Jarduera bat hasteko, udalaren alde zuzeneko balorazioa beharko da.

Kultura-jarduerei aplikatzeko arauak: denboraldiko jardueren kuota itzuli ahal izango da jarduera hasi eta lehen hilabetean, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik.

Kuotak ez dira inola ere itzuliko hura hasi eta hilabete igaro ondoren.

Halaber, kuota itzuli ahal izango da denboraldikoak ez diren jardueretan (hiru hilean edo hilean behin), jarduera hasi eta lehenengo astean, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik.

Ez dira inola ere itzuliko sasoikoak ez diren jardueren kuotak (hiru hilekoak edo hilekoak), jarduera hasi eta astebetara.

Dagoeneko hasita dauden jardueretan, otsailera arte kuota osoa ordainduko da, eta martxoaren 1etik aurrera urteko kuotaren ehuneko 60 ordainduko da.

Hobaria emango zaio familia-unitateko pertsona bakoitzeko kuota bati, betiere udal-zergen ordainketan egunean badago. Horretarako, familia-errenta estandarizatuaren kalkularen emaitza hartuko da kontuan, II. eranskinean ezarritakoaren arabera.

6. Epigrafea: Txangoak

KONTZEPTUA	TASA
Multiabentura asteburuak	135,00 €
Egun bateko txangoak	10,00 €

7. epigrafea: kultura instalazioak alokatzea

LOKALA	ZENBATEKOA
Ekitaldi aretoa	60,00 euro/orduko
Elixoste plazako lokalak	30,00 euro/orduko

Lokal horiek, edukieraren arabera, doan utziko zaizkie bilerak, hitzaldiak eta abar egiteko, honako hauei:

- Erregistratutako kultura eta kirol elkarteak.
- Erregistratu gabeko tokiko elkarteak eta tokikoak ez direnak, baldin eta kultura eta gizarte interesa badago eta giza eskubideak sustatzen edo defendatzen badituzte.
- Garazi ikastola eta osasun zentroa.
- Erakunde publikoak: Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Gorbeialdeko Kuadrilla.



II. Eranskina

Hobarien taula hau aplikatuko da, familia-unitatearen errenta estandarizatuaren arabera, familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuan xedatutakoaren arabera:

FAMILIA-ERRENTA ESTANDARIZATUA	HOBARI-EHUNEKOA
13.000 eurora arte	% 90,00
13.001 eurotik 15.000 eurora	% 75,00
15.001 eurotik 18.000 eurora	% 50,00

FAMILIA-ERRENTA ESTANDARIZATUA KALKULATZEKO METODOA

Familia-errenta (zerga-oinarri orokorra gehi PFEZren aurrezpenaren zerga-oinarria) familia-unitatearen baliokidetasun-koefizienteaz zatitzearen emaitza izango da (dagozkion koefizienteak batuko dira):

SUJETO PASIBOA	KOEFIZIENTEA
Ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin	1,5
Ezkontiderik edo izatezko bikotekiderik gabe	1,3
Genero-indarkeriaren biktima	1,3
Familia-unitatea osatzen duen seme-alaba bakoitza	0,3
Familia-unitateko kideren batek desgaitasuna = >% 33	0,3

Betekizunak:

Hobari horretaz baliatu ahal izateko, interesdunek eskatu beharko dute hobari hori ematea, honako dokumentazio hau aurkeztuta:

a) Eskabidea, behar bezala sinatuta.

b) NAN/AIZ



Ayuntamiento de **LEGUTIO**
LEGUTIOKO Udala

c) Familia-unitateko kide guztien PFEZaren aitordpena edo aitordpen hori aurkeztu beharrik ez izatearen egiaztatzea. Azken horretan, azken ekitaldian jasotako errenten egiaztatzea aurkeztu beharko da.

Legutio, 2022ko abenduaren 22a.

Alkatea

JUAN CRUZ JAINAGA INCIARTE